


**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

**Gasteizen
sexu-orientazioaren eta
genero-identitatearen
aurka izandako
gertakariei buruzko
Txostena**

2019ko maiatzetik
2020ko apirila arte



Ikusgune

Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokia
Observatorio contra la LGTBI+fobia de Vitoria-Gasteiz





Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokia

Observatorio contra la LGTBI+fobia de Vitoria-Gasteiz

edizioa

IKUSGUNE. Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia

datuak

IKUSGUNE. Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak jaso ditu datuak

kolaborazioa

Gasteizko Udaletxea
Berdintasun zerbitzua



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**Gasteizen
sexu-orientazioaren eta
genero-identitatearen
aurka izandako gertakariei
buruzko Txostena**

2019ko maiatzetik
2020ko apirila arte

glosarioa

«**Zuzeneko diskriminazioa**»: egoera berean edo antzekoan egonda, pertsona bati beste bati baino tratu okerragoa ematen zaionean, haren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik: hara hor noiz dagoen zuzeneko diskriminazioa.

«**Zeharkako diskriminazioa**»: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat ekar badakieke pertsona batzuei, euren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kideak izateagatik: hara hor noiz dagoen zeharkako diskriminazioa.

«**Askotariko diskriminazioa**»: orientazio sexualagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik diskriminatua izateaz gain, beste mota baten diskriminazioa ere jasaten denean, nazioarteko edo Estatuko legeetan jasotako motiboak direla-eta: hara hor noiz dagoen askotariko diskriminazioa. Bereziki hartuko da kontuan beste faktore batzuk gehitu badaitezke genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kide izateagatik gerta daitekeen diskriminazioari, hala nola immigrantea edo ijito-herriko kidea izatea.

«**Diskriminazioa, harreman baten oinarrituta**»: LGTBI+ den pertsona, talde edo familia batekin harremana izatearen ondorioz egiten denean diskriminazioa.

«**Diskriminazioa, uste oker batean oinarrituta**»: iritzi oker baten ondorioz norbait diskriminatzen denean, haren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik (lagun bat zein talde bat diskriminatu daiteke).

«**Jazarpen diskriminatzailea**»: norbaiten duintasunari eraso egitea edo kikilduta, areriotzat joa, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea helburu edo ondorio duen jokabide oro da jazarpen diskriminatzailea, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo talde bateko kide izateagatik egiten dena.

«**Errepresalia diskriminatzailea**»: norbaitek tratu txarra edo ondorio txarren bat jasotzen duenean, sufritzen ari den edo sufritu duen diskriminazioa edo jazarpena saihesteko, gutxitzeko edo salatzeko asmoz, kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo edozein motako errekurtso bat aurkeztu duelako.

«**Bigarren mailako biktimizazioa**»: lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgenero eta intersexualei gehitzen zaien kaltea, diskriminazioa, jazarpena edo errepresaliaren biktimak izateaz gain, beste ondorio batzuk ere sufritzen dituztenean arreta txarra edo desegokia ematen dietelako administrazio-erakundeek, osasun-erakundeek, polizia edo gaian zerikusia duen beste edozein eragilek. Batzuetan, inplikaturako beste eragile batzuen jardueraren ondoriozkoa izaten da.

«**Intragenero indarkeria edo genero berekoen arteko biolentzia**»: ekintza biolentoak dira, sexu bereko bikote bateko bikotekide baten osotasun fisikoan, psikikoan, moralean edo bizitzan eragiten dutenak, eta bikotekideen arteko desberdintasun-egoera eta botere-harremana adierazten dutenak. Ekintza horiek ezkontide-ohien edo ezkontideen aurka egiten dira, edo, bikotekideen arteko elkarbizitza egon ez den arren, noizbait ezkontzaren bidezko antzeko harremanen bidez lotutako pertsona baten aurka.

«**Bullying-a**»: ikasleen artean behin eta berriz errepikatzen den tratu txar psikologikoa, edozein

motakoa dela ere: ahozkoa zein fisikoa.

«**Cruising**»-a: sexu-harremanak izateko baliatzen diren aisialdi eta olgeta-espazioak. Gehien bat, gay kolektiboak erabiltzen dituzten espazio horiek.

«**Lesbofobia**»: lesbianen aurkako diskriminazio-ekintzak, marjinazioa, arbuioa edo indarkeriazko ekintza.

«**Bifobia**»: pertsona bisexualen aurkako diskriminazio-, bazterketa-, arbuio- edo indarkeria-ekintzak.

«**Transfobia**»: pertsona transexualen aurkako diskriminazio-, bazterketa-, arbuio- edo indarkeria-ekintzak.

«**Serofobia**»: diskriminazio-ekintzak, marjinazio-ekintzak, arbuio-ekintzak edo indarkeria-ekintzak, giza immunoeskasiaren birusa duen jendearen aurka egiten direnak, edo birus hori izan dezaketela susmatzen den jendearen aurka.

«**Passing**»: genero-rol hegemonikoen barruan gorputz bat “irakurtzeko” modua, batez ere pertsona transei aplikatuta.



aurkibidea

	Pag.
<u>00</u>* Hitzaurrea	09
<u>01</u>* Helburuak	11
<u>02</u>* Oraingo testuingura	13
<u>03</u>* Metodologia	21
<u>04</u>* Datuen azterketa	25
<u>05</u>* Isla komunikabideetan	39
<u>06</u>* Eztabaida eta ondorioak	43
<u>07</u>* Erasoak LGTBI+ kolektiboaren barruan	53
<u>08</u>* Kolaborazioak	55
Delitos de odio: el reto de su visibilidad. María Vidal Beneyto Gorrito-delituen eta diskriminazioaren aurkako fiskal delegatua Arabako Fiskaltza	56
“La herramienta del amo nunca destruirá la casa del amo” Miren Ortubay Fuentes Feminista, Profesora de Derecho Penal UPV/EHU	58
Documento de análisis jurídico de las incidencias recogidas. Observatori Contra l’Homofòbia de Catalunya	61
<u>09</u>* Gomendioak	65
<u>10</u>* Bibliografia	69

00*

hitzaurrea



Esku artean duzun txostena Gasteizko **IKUSGUNE** LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak aurkeztzen duen lehena da, baita **Lumagorri ZAT** elkarteak egiten duen ondoz ondoko hirugarrena ere. Aurten nabarmendu behar dugu III. Urteko txostenaren argitalpena sendotu egin dela: **Erasoei buruzko txostenaz ari gara, zeinak 2019ko maiatzetik 2020ko apirilera arteko bitarteko egoera** jasotzen baitu. Bada, lankidetzan egin dugu, **Gasteizko Udalarekin, Berdintasun Zerbitzuaren** bidez, eta LGTBI+ jendearekin eta antzeko kolektiboen sarearekin, eta horri esker posible izan da erasoak gero eta hobeto antzematea.

Homofobiari, lesbofobiari, transfobiari eta bifobiari dagokienez gure udalerrian dagoen benetako egoera ikusaraztea du helburu hirugarren txosten honek ere. Izan ere, nahiz eta gure udalerria asko aldatu den azken hamarkadetan, kultura sozial

arauemaile eta zisheteropatriarkalaren baitan dago oraindik ere, eta horren ondorioz etengabe sortzen dira egoera zapaltzaileak arau soziala betetzen ez duen jendearen aurka edo hierarkia sozialaren barruan mendekoak diren pertsonen aurka.

Orain Gasteizko herritarrek ezagunago dute LGTBI+fobia salatzeke zerbitzua. Aurreko urteetan, berriz, hori ez zen gertatzen, eta tresna horren berri ez izateak eragina izan zuen egunero izaten ziren gertakariak ezagutzeko ala ez. Gaur egun, ordea, zenbait bide ditugu erasoak eta gorabeherak detektatzeko, eta Gasteizko LGTBI+ jendea informatuago dago horri dagokionez. Hala eta guztiz ere, bide luzea dugu oraindik Behatokia ezagutarazteko: espero dugu, dena den, inflexio-puntu bat egotea laster, hain zuzen ere, kalean espazio fisiko bat irekitzen dugunean.

Ikusi ahalko duzunez, 2019an eta 2020. urteko hasieran identifikatutako erasoek gora egin dute aurreko urtekoekin alderatuta. Aurreko urteekiko igoera horren arrazoia da Gasteizko LGTBI+ biztanleriak zerbitzu hori hobeto ezagutzen duela. Txostenean, kasuen tipologia egiaztatzea izango duzu, baita horietako bakoitzaren analisia ere, oso informazio baliotsua ematen baitigu errepikatzen diren patroiei edo espazio kalteberei buruzko ondorioak ateratzeko.


Era berean, zenbait berrikuntza aurkituko dituzu aurtengo txostenean aurrekoekin alderatuta, hala nola kezkatzeko gaituzten hiru arloetarako hurbilketa zehatzagoa: genero berekoen arteko erasoak, lesbofobiaren egoera eta zigor-legeriaren aplikazioa erasoen zenbait tipologiatan.

Horrez gain, Behatokiaren sarea zabaltzen jarraitzen dugu. Izan ere, 2018an **Homofobiaren, Lesbofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Behatokiaren Nazioarteko Sarea** abian jarri ondoren, kasuak detektatzeko esperientziak trukatzeko jarraitzen dugu, eta jarraibide komunak sortzen erregistroan, datuak konparatzeko modukoak izan daitezkeen eta metodologia berari erantzun diezaioten.

Testuinguru sozialari dagokionez, komunikabide masiboetan gorroto-mezuak areagotzen jarraitu dutela ikusi dugu aurten, Espainiako Estatuan dagoen egoera politikoaren ondorioz. Sare sozialek funtsezko zeregina dute oraindik diskurtso horien hedapenean, eta Gasteiz ez dago egoera sozial horretatik kanpo.

Dena den, hasiak dira horri buruzko neurriak hartzen.

Azkenik, gogorazi nahi dizugu oraindik ere lan handia geratzen dela egiteko gure jendaratean arau zisheterossexuala desagerrarazteko, baina, zure babesari eta laguntzari esker, gero eta gutxiago geratzen dela helburu hori lortzeko. Bitartean, konpromiso irmoa hartu dugu edozein gertakari jendaurrean salatzeko. **Erasorik ez erantzunik gabe.**



01*

helburuak



Aurreko txostenek urratutako ildo beretik jarraitzen du txosten honek, gure udalerrian eta gure lurraldean gertatzen ari den errealitate bat ikusaraztea baitauka helburu nagusi, oraindik ere egitura sozial eta kultural normatiboek oso ikusezin bihurtzen jarraitzen duten errealitate bat, hain zuzen. Azken hamarkadetan aurrerapenak egon diren arren, LGTBI+fobia handia dago oraindik Gasteizen, bai zuzeneko eraso gisa, bai modu sotilean ere, eta imajinario kolektiboan oso errotuta dauden jokabideen bidez islatzen da, erasoak eta diskriminazioa eraginez.

Lumagorri ZATek, Gasteizko Sare Transbollarikarekin lankidetzan, lan gogorra egin du, eta borondatezkoa, udalerriak LGTBI+fobiari buruz duen errealitatea jasotzen duten txostenak lantzeko. Aurten esan dezakegu hirugarren txosten

hau Gasteizko **IKUSGUNE** LGTBI+fobiaren aurkako Behatoki erakundearen esparru profesionalizatuan aurkezten den lehena dela. Profesionalizazio horrek, nahiz eta osatu gabea izan, lana egiteko eta kasuak modu optimoan artatzeko lokal fisikorik ez dagoelako, aukera eman du aurreko bi txostenetan ikusitako gertakizunak edo gorabeherak gehiago eta hobeto ezagutzeko. Hori dela-eta, hirugarren txosten hau sokorru-oihu bat ere bada: udalerrientzat estrategikoa den proiektu honi espazio fisiko bat izateko premia larriari erantzuteko oihua, proiektuari duintasuna emate aldera.


Berriz ere, detektatutako eraso gehienak ez dira salatzen, eta, horren ondorioz, erakunde publikoek ez dute horri buruzko informazio ofizialik. Erruduntasun-presuntzioak oso indarrean jarraitzen du gure kulturaren (“Ondo merezia daukat”, “Errua nirea da mutil/neska batekin ligatzen saiatzeagatik, homosexuala den jakin gabe”, “Hobe da kalean deigarri ez ibiltzea, erasorik egin ez diezadaten”). Horrek guztiak are zailagoa egiten du erasoen biktimei laguntzea. Gainera, gorrotoaren diskurtsoa hazten ari da, etengabe hazi ere, bai arlo pribatuan, zeinari ohituta gauden, bai arlo publikoan. Gero eta gehiago dira dibertsitatearekiko gorrotoa baino ez sustatzen dutenen bozgorailu mediatikoak. Sare sozialek ere funtsezko zeregina dute gorroto-diskurtsoa eta ziberjazarpena hedatzeko, eta legeria ez dago errealitate berriekiko guztiz eguneratuta.

LGTBI+ pertsonen dagokienez, hau da txosten honen bidez lortu nahi dugun helburu nagusia: lesbianeiei, gayei, transexualei eta bisexualei esatea erasoak ez direla inola ere onargarriak, eta funtsezkoa dela haiek erregistratzea eta jendaurrean salatzea. Erasorik ez erantzunik gabe. Gure bigarren helburua da, berriz, esparru egokia bermatzea, edozein pertsona gai izan dadin, bere sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta eraso bat sufritu badu, hura identifikatzeko eta horren inguruan informatzeko eta salatzeko mekanismoak ezagutzeko. Horretarako, funtsezkoa da ikusgai izateko beharra azpimarratzea, armairuan ezkutatzea errotik kendu behar dugun beste eraso sozial mota bat baita.

Maila sozialean, gure helburu nagusia da udalerrian nahiz lurraldearen gainerako lekuetan detektatutako LGTBI+fobia egoerak kuantifikatzea, ezkutuko errealitate hori argitara ateratzeko. Ezin dugu jarraitu salaketa judizial eta sozial gutxiegi izaten; horrekin amaitu beharra dugu, eta, horretarako, eremu konplexuenetara iritsi beharko dugu, zeinetara egungo jendartearen aktibista gisa iristea zailagoa den. Funtsezkoa da,

horrenbestez, maila publikoan eta mediatikoan errealitate horri buruz hitz egitea, salaketa gutxiegia egotea normaltzat jotzea saihestea eta LGTBI+ garenok hainbeste urtetan hezkuntza normatiboa jaso ondoren hain sartuta dugun erruduntasun-sentimendua kentzea.

Helburu berri bat ere ezarri dugu: errealitate berri bat nabarmentzen jarraitu behar da. Errealitate hori, hamarkadetan zehar egon bada ere, 2005eko ekainean **Kode Zibilaren** aldaketa onartu ondoren antzeman zen erakundeetan, pertsona guztien arteko ezkontza ahalbidetu baitzen, legezko sexua edozein izanik ere. Errealitate berri hori genero berekoen arteko indarkeria da, eta hura sakon jorratu beharra, berori prebenitzeko eta juridikoki tratatzeko esparru egokia sortzeko.



02*

oraingo testuingura



gorputzen irakurketa

Den-dena sailkatzeko joera izaten dugu gure jendartean. Testuinguru kultural jakin batetik datorkigu sailkapenak egiteko ohitura hori, eta sailkapen horien eraginez kontzeptuen ikuspegi erlatiboa eta subjektiboa galtzeaz gain, gertakari batzuk berezkotzat eta funtsezkotzat jotzen ditugu, nahiz eta errealitatean gauzak ez horrela izan. Horren adibide bat dugu gorputzei buruz egiten dugun arauaren araberrako irakurketa, horixe ezarri baita gaur egun menpean gaituen hierarkia sortu arte. Hala, bada, gure egunerokoa arautzen duen eredu hori neoliberal da, etnozentrkoa eta zisheteronormatiboa.

Zisheteronormatibitatearen eta binarismoren betaurrekoak jantzita irakurtzen dira zorrozki gure jardunbide sexualak, bai eta gure genero-adierazpena ere. Horrenbestez, arau horretatik kanpo dagoen edozein adierazpen edo sentimendu baztertu ohi da, eta zigortu, hein handiago edo txikiago batean.

Hierarkiek botere-harremanak sorten dituzte jendartean. Hierarkiaren goiko aldean dauden pertsonak sarituak izaten dira: legezketasuna lortzen dute, eta mugikortasun fisikoa eta soziala, laguntza instituzionala eta onura materialak; gainera, osasun mental “egokia” dutela aitortzen zaie. Beherago gaudenok (homosexualak, lesbianak, transexualak, langile sexualak, trabestiak...) baztertuak izaten gara, anormaltzat, arriskutsutzat, biolentotzat, gaixotzat edo bekataritzat jotzen gaituzte eta. Horren ondorioz, sozialki eta ekonomikoki baztertzen gaituzte askotan, eta eskumikatzen, atxilotzen, bortxatzen edo erailtzen.

Identitate- eta adierazpen-aukera zabala dugu jendartean. Dibertsitate hori Historia osoan zehar izan da, zenbait saiakera egin diren arren, hura baliogabetzeko eta ereduaren interesen zerbitzuaren pean dagoen ereduak sortzeko. Badaude, bada, beren burua honela definitzen duten pertsonak: gizon femeninoak, transgeneroak, gizon maskulinoak, emakume maskulinoak, transexualak, trabestiak, drag-ak, queer-ak, emakume femeninoak, gizon gay-ak, transexual lesbianak, hijra-k, zenbait genero, malgu eta sortzaile dituzten adingabeak, eta abar. Baina jendarteak, ordea, binarismoak joa behatzen du dena, eta bi sexutan eta bi genero dikotomikotan antolatzen, osagarriak, baztertzailak eta hierarkizatuak direnak: arra/emea, maskulinoa/femeninoa, gizona/emakumea. Horren ondorioz, areagotu egiten dira zapalketa eta zigorra arau horretatik ihes egiten dugunon aurka.

Sexu/genero sistema hori dela-eta, ezagutzen dugun jendarte-ereduan, sexualitate biologikoak gizonen eta emakumeen arteko desberdinasunak ekarri ditu; emakumeak kaltetuenak suertatzen dira prozesu horretan. Sistema hori dagoela aintzat hartuz ulertu dezakegu nondik datozen gizonen eta emakumeen arteko mendekotasun-eta zapaltze-harremanak, hau da, ez da pentsatu behar sexua bera dela, berez, desberdintasun horien sorburua, aitzitik: jendartean eraikitako genero-posizioetatik datoz desberdintasunok.

Modu horretan onartzen da generoa sexu biologikoan oinarrituta eraikitzen dela, eta generoa kategoria sozial bat izango litzateke, horrenbestez. Naturaren eta kulturaren arteko dikotomia bat errepikatzen da,

hau da, auresuposatzen da sexua dela naturala dena, biologikoa, zalantzarik gabekoa eta aldagaitza, eta generoa, berriz, sexu horren oinarriaren gainean eraikitakoa, eta, horrenbestez, hori dela aldatu daitekeena.

Sexu/genero sistema hori eraikitzeko moduaren ondorioz gertukoena dira egiten ditugun bazterkeriak ez dugulako kontuan hartzen pertsonen sexu- eta genero-dibertsitatea. Logika binarista, heterosexista eta biologizista horri jarraikiz, jende asko baztertuta izaten da:

Heterosexualak ez direnak

jaiotzean genital “behar bezain argirik” ez izateagatik ez sexu femeninokotzat ezta sexu maskulinokotzat ere jotzen ez direnak, eta, horrenbestez, zalantzarik gabe bi genero horietariko bat esleitua ez dutenak

jaiotzez esleitu zieten generoaz besteko generoa bizi dutenak edo zenbait genero izan nahi dutenak, baita batere generorik izan nahi ez dutenak ere

LGTBI+ jendearekiko gorrotoa

LGTBI+ jendearekiko gorrotoa Historian zehar eratu da aurreiritzietan oinarrituta, aurreiritziak sexu-orientazioa edo genero- identitateak ez normatiboak ditugunok deabruzat jotzeko baliatu baitira. Izan ere, horrela jokatu da jendea kontrolatzeko eta betikotzeko sistema politiko, sozial eta erlijiosoa, ezin zituena (eta ezin dituen) onartu munduan egoteko modu disidenteak. LGTBI+ jendearekiko gorroto-diskurtsoak kolektiboak baztertzea ekarri du, eta kolektiboak ikusezintasunera jo behar izan du bizirauteko jendartean, zisheterosexualitate binarista arau nagusia eta baztertzailea baitu. Nahiz eta LGTBI+ jendearen eskubideak bermatzeko aurrerapen legalak eta sozialak lortu diren, oraindik ere sexu-orientazioa eta genero-identitateak dira gorroto-delituen arrazoi nagusietariko bat.

Homofobia

George Weinberg psikologoa hasi zen homofobia terminoa erabiltzen hirurogeita hamarreko hamarkadan. *La Sociedad y el Homosexual Saludable* liburuan aipatu zuen termino hori (1972an argitaratu zen). **Weinberg**-ek hau zioen: “*Inoiz ez nuke osasungarritzat joko paziente bat, baldin eta ez badu gainditu homosexualitatearen aurkako aurreiritzia. Heterosexuala izanda ere, homosexualitatearekiko higuina, egitan, kaltegarria da berarentzat*”. Bere lanean, Weinberg-ek aurreneko aldiz sartu zuen homofobia terminoa homosexualitatearekiko gorroto sakona erakutsiz jokatzeko duten pertsonak aipatzeko. Arbuio hori, **Weinberg**-en arabera, gizon eta emakume homosexualekin kontaktu estua izatearen ikara handitik dator, baita heterosexualitateaz besteko sexu-orientazioa duten pertsonetako beldur irrazional, gorroto eta intolerantziatik ere.

Transfobia

Transfobia da transexualek nozitzen duten arbuioa, sozialki ezarritako sexu/genero sistema urratzen dutelako. Pertsona horiek bereziki zaugarriak dira, eta bazterketa- eta biolentzia-maila handia nozitzen dute. Teoriko eta egile transfeminista **Julia Serranok** bere *Wipping Girl* liburuan argudiatzen duenez, sexismoan ditu erroak transfobiak. Aipatutako egileak aurkakotasun-sexismoa deitzen dio. Uste honetan datza: maskulinoa eta femeninoa dena elkar baztertzen duten kategoria zorrotzak dira, eta bakoitzak atributuak, jarrerak, gaitasunak eta desira bakarrak ditu, inoiz gainjartzen ez direnak. **Serranok** erkatzen ditu aurkakotasun-sexismoa eta sexismo tradizionala, hau da, gizonak eta maskulinitasuna emakumeak eta feminitatea baino gehiago direla ustea. Haren argudioen arabera, jendeak generoari eta genero-arauei buruz dituen ziurtasun-gabezietatik elikatzen da transfobia.

Homofobiaren eta misoginiaren hedapena da transfobia, kritikari transgenero **Jody Norton**-en

arabera. Norton-ek argudiatzen duenez, pertsona transgeneroak, gayak eta lesbianak gorrotatuak dira, eta haien beldur da jendea, genero-rolak eta genero-binarismoari aurre egiten dietelako, eta kategoriatuak guztiak “zulotzen” dituztelako. Egileak dionez, *“gizonetik emakumerako pertsona transgeneroak akuilatzen du transfobia, inplizituki desafiatzen ari delako hegemonia politiko eta kultural maskulinoa darion genero-banaketa binarioa”*.

ikuspegi feminista

Ikuspegi interesekzional eta feminista batetik baino ezin da ulertu sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta dagoen gorrotoaren azterketa. Ezin dugu ulertu matxismoa eta LGBTBI+fobia kontu bereiztuak balira bezala; haien azterketak, aitzitik, ontzi komunikantearena bezalakoxea izan behar du, jendartean ezarritako sistema patriarkalak gauzatutako zapalkuntza baten gisa.

Gaur egun, kultura matxistak genero-sistema binarioa ezartzen du: “gizona” eta “emakumea”. Hala, alde batetik, zigortzen eta baztertzen du binarismo horretan aitortzen ez den edozein identitate, eta, beste alde batetik, “emakumea” “gizonaren” pean jartzen du, gizonaren kategoriatuak hierarkia sozialaren gailurrean kokatzen duelako. Gainera, bien arteko harremana, ikuspegi matxistatik, heterosexualitatearen arauaren pean baino ez da ulertzen, eta, arau horri jarraikiz, edozein disidentzia zigortzen da.

Ezarritako sexu-genero sistemaz gain, ekuazio horri gehitzen zaizkion zapalkuntza ugari izaten dira, klase sozialaren, jatorria, talde baten partaide izatearen edo gaitasun ekonomikoaren arabera. Hala, bada, honela aurkezten zaigu jendartea: “gizon” dirudun, zuri eta heterosexualek botere-posizioak betetzen dituzte, eta beheagoko mailetan dauden kategoriatuak zapaltzen eta menperatzen dituzte.

Ikuspuntu horretatik, aldarrikapen feministatik eta heterosexismoaren aurkako borrokatik etsai erkidea, gure zapalkuntzen sortzailea dena, aurkitu beharrean gaude.

Egoera horri erantzuteko antolakuntza politiko gisa zenbait kategoriatuak ezartzen dira, etengabe ezbaian daudenak. Izan ere, ez dira errealitate sozialera egokitzen, baina baliagarriak dira, ordea, zisheteropatriarkatua errotik kentzeko tresna politiko gisa. Hala, aktibismoak LGBTBI+ siglak berak jartzen ditu kolokan; pertsona-multzo oso handiaren identitatea ontzi estankotetan sailkatzeko baino ez baitute balio. Helburuak lortzeko bidean baliatzen dugun tresna politiko bat bezala partekatzen ditugu, beraz, siglak, baita sexu-orientazioa eta identitatea eta genero-adierazpena direla-eta izaten den zapalkuntza eta diskriminazioa salatzen ere, baina ez, ordea, oso dibertsoa eta konplexua den pertsonen talde bat islatzeko. *“Beharrezko fikzioa”* da, **Jeffrey Weeks**-en hitzetan; izan ere, esan dugun bezala, sigla horiek ez dute islatzen biltzen dituzten errealitateen aniztasunaren eta konplexutasunaren dimentsioa.

LGTBI+ jendearen aurkako aurreritziak

Historian zehar zenbait aurreritzi sortu dira LGBTBI+ jendearekiko, eta aurreritzi horiek indarrean daude oraindik gure jendartean, hein handiago edo txikiago batean, eta ageriko zein ezkutuko biolentziaren eragileak dira. Aurreritzi horiek sistema normatiboa zalantzan ez jartzetik abiatzen dira. Esate baterako, honelakoak onartzetik: homosexualitatea ez da naturala; homosexualitatea gaixotasun bat da, eta osatu daiteke; homosexualak ezin dute harreman egonkorrik izan; sexu bereko bikoteetan batek gizonarena egiten du eta besteak emakumearena; homosexual guztiak afeminatuak dira, eta lesbianoak, maskulinoak; lesbianek ez dute sexualitate betetik; emakume guztiak dituzte gustuko lesbianoek eta gizon guztiak gay-ek; bisexualak biziotsuak dira; transexualitatea eta trabestitzea gauza bera da; transexualitatea hautaketa, aukera edo kapritxo bat da; transexualek ikuskizun-munduan egiten dute lan; transexualitatea prostituzioarekin lotuta dago; transexualitate gaixotasun mental bat da; transexualitatea eta intersexualitatea gauza bera dira; pertsona transexual guztiak heterosexualek dira.

gorroto-delituak zenbatzea

OSCE-Europako Segurtasun eta lankidetzako Erakundearen arabera, hau da gorroto-delitua: edozein zigor-arloko arau-haustea, pertsonen edo ondasunen aurkako arau-haustek barne, non biktima, lokala edo arau-haustearen helburua aukeratzen baita talde batekiko lotura, sinpatia, filiazioa edo babesa izateagatik edo haren kide izateagatik, hori guztia benetakoa izanik edo hala dela susmatzen delako. Talde bat haren kideek duten ezaugarri erkide batean oinarritu behar da, hala nola taldekideen benetako arraza edo “esleitzen” zaiena, jatorri nazionala edo etnikoa, lenguaia, kolorea, erlijioa, sexua, adina, ezintasun intelektuala edo fisikoa, orientazio sexuala edo antzeko faktore bat.

Bereiztu behar ditugu, batetik, gorroto-delituak, zigor-arloko legetan aitortzen diren moduan, eta, bestetik, homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia direla-eta izaten diren erasoak: irainak, mehatxuak, erridikulizazioa, lapurreta/ebasketa, eraso fisioa edo zerbitzu bat ukatzea, baldin eta sexu-orientazioarekin zein genero-identitatearekin zerikusia duten aurreritziengatik edo gorrotoagatik izaten badira, biktimaren, hirugarren baten, lekuko baten edo gorabeheraren berri jaso duen pertsona baten irizpidearen arabera.

Oso garrantzitsua da nabarmentzea gorabehera horiek guztiak ez direla gorroto-delitutzat jota jasotzen legedietan, eta, horrenbestez administrazioek ez dituztela zenbatzen eraso-mota guztiak. Funtsezkoa da hori kontuan hartzea, elkarteek eta mugimenduek erasoer buruz jasotako datuak eta administrazio publikoetako erakundeek jasotakoak zergatik ez datozen bat ulertzeko. Gorroto-delituak eta diskriminazioa zigortzeko zailtasunen artean daude, hain zuzen, segurtasuna bermatu behar duten eta justizia egin behar duten profesionalen prestakuntza-falta, salatutako gertakarien kopurua ez ezagutzea eta zenbait gertakari salatu gabe geratzea.

2006an, beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea (erreal edo “susmatutakoa”) direla-eta pertsonen kontra zuzendutako abusuen eredu ondo dokumentatuei erantzute aldera, zenbait erregiotako giza eskubideen gaineko aditu-talde bikain bat elkartu zen, Yogyakarta (Indonesia), orientazio sexualarekin eta genero-identitatearekin lotutako nazioarteko printzipioak ezartzeko. Bilera hartatik ateraziren **Yogyakartako printzipioak**¹, zenbait legezko nazioarteko printzipio sexu-orientazioaz eta genero-identitateaz eta nazioarteko zuzenbideaz, estatu guztiek bete beharreko estandarrak jasotzen dituztenak. Estatuak ez dute, ordea, printzipio horiek tratatu batean hartu, eta, horrenbestez, oraindik ez dira, berez, **Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen** tresna lotesle bat.

gorroto-diskurtsoa

Arazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batordearen arabera (ECRI, ingelesezko siglak), arraza batzuekiko gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa eta gorrotoaren beste era batzuk hedatzen, bultzatzen edo justifikatzen dituzten adierazpen-forma guztiak sartzen dira gorroto-diskurtsoaren² barruan; intolerantzia oinarrituak, eta, besteak beste, nazionalismo erasokorrak eta etnozentrismoak, gutxiengoen eta immigranteen eta immigraziotik datozen pertsonen aurkako diskriminazioak eta etsaitasunak adierazten duen intolerantzia, tartean.

Zigortzen dena ez da berez ideia batzuen adierazpena, ideiak hinguigarriak izanik ere, baizik eta adierazteko modua eta egoera kontuan hartuta, baldin eta gorrotoa, diskriminazioa eta biolentzia bultzatzen bada, zenbait konstituzio-balio urratuz: pertsonen duintasunarekiko errespetua, eta, jaiotza, jatorria, sexua, erlijio edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial direla-medio, ez diskriminatzea (Konstituzioaren 10. eta 14. artikulua).

Eztabaida handia dago pertsonen duintasunak eta adierazteko eskubideak, biak funtsezko eskubideak izanik, egiten duten talkaren inguruan, eta epaitegien zenbait epai egon dira gai horren inguruan. **Auzitegi**

1 <http://yogyakartaprinciples.org/principles-sp/about/>

2 <https://rm.coe.int/ecri-general-policy-recommendation-n-15-on-combating-hate-speech-adopt/16808b7904>

Gorenak aipatzen du, ideologia adierazteko askatasunak ez duela babesten gorroto-diskurtsoa. Ikusten dugunez, dena den, epaitegiek haren erabilpen partziala egiten dute, eta LGTBI+ kolektiboa babesik gabe uzten den bitartean, oso babestuta geratzen dira, ordea, beste kolektibo batzuk, inoiz zaurgarritzat jo ez direnak, hala nola eliza edo segurtasun-indarrak eta kidegoak. Estatuko **Fiskaltza Nagusiaren**³ maiatzaren 14ko 7/2019 Zirkularra ere hartu behar dugu aintzat, zeina Zigor Kodearen 150. artikuluan tipifikatutako gorroto-delituak interpretatzeko jarraibideei buruzkoa baita. Bertan, zera adierazten da: *“ideologia nazia duen pertsona bati eraso egitea, edo kolektibo hori gorrotatzeko akuilatzea mota horetako delituen barruan sar daiteke”*.

Giza Eskubiden Europako Auzitegiarentzat, adierazpen-askatasunak ez ditu babesten gorroto-diskurtsoak.

2019an, **Interneten Gorrotoa legez kanpo bultzatzearen aurka Borrokatzeko Jokabide Kodearen Laugarren Ebaluazioaren**⁴ emaitzak argitaratu zituen **Europako Batzordeak**; sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta Facebook, Twitter, YouTube eta Instagram plataformetan pertsonen zuzendutako gorroto-diskurtsoa barne hartzen zuela. Sexu-orientazioa dela-eta zabaltzen den gorroto-diskurtsoa izan zen gehien aipatu zen bigarren arrazoia (% 15,6), eta txostenen % 3,7, berriz, genero-identitatea dela-eta zabaltzen den gorroto-diskurtsoari buruzkoa izan zen.

2019an, **Europako Parlamentuak** ebazpen bat eman zuen **“LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio publikoari eta gorroto-diskurtsoari buruz, LGTBIrik gabeko eremuak barne”**. Ebazpenak kezka handia adierazten du estatu-, eskualde- eta toki-mailako gobernuek eta **Europar Batasuneko** politikariek LGTBI+ komunitatearen aurka egindako erasoen kopurua gero eta handiagoa delako. Ebazpenak aitortzen du LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria areagotu egin dela, **Europar Batasun** osoan hazten ari den homofobiak eta transfobiak eragindako gorroto-krimenekin.

LGTBI+ jendearen ikusgaitasunik eza

Azterketa egin aurretik azpimarratu behar dugu ikusezintasuna dela LGTBI+ garenok Gasteizen ere gainditu beharreko erronkarik handiena.

Europako Batasuneko Funtsezko Eskubideen Agentziak⁵ LGBTI jendeari egindako inkestaren arabera (2013), % 48k argiro erakusten diete senideei LGBTI direla, eta % 28k ez die horren berri eman inori edo adiskide gutxi batzuei soilik. Bakarrik % 21 agertzen da den bezalaxe lankideen edo ikaskideen aurrean. Inkestatutakoen erdiek ia uste dute orokorra dela politika profesionalki gauzatzen duten pertsonen LGBTI jendeari buruzko adierazpen irangarriak egitea. Bi heren saiatzen dira beren sexu bereko bikotekideekin eskutik helduta ez joaten jendaurrean, beldur direlako ez ote dituzten mehatxatuko, erasotuko edo jazarriko. Proporzio hori hiru laurdenena da inkestutako gizonezko gay edo bisexualen artean. Inkestatutako % 50ek saihesten dituzte leku jakin batzuk LGBT izateagatik erasotutako, mehatxatutako edo jazarriak izatearen beldur direlako. Hori guztia bereziki garraio publikoari, kaleari, leku publikoei edo eraikin publikoei aplikatu dakieke.

Gasteizen ere ikusezintasuna baliatzen da autodenfentsa-tresna gisa. Bizitoki dugun hiria askoz atseginagoa da beste leku batzuk baino, non homosexualitatea jazarrita dago eta kartzela-zigorraz ezartzen baitzaio, baita heriotza-zigorra⁶ ere. Hori horrela bada ere, gurean ere kultura matxista errotuta dago, eta, horren ondorioz, oso ohikoa da beldur izatea eta ez ausartzea armairutik irteten. Agian testuinguruaren arabera disoziazioa dagoela nabarmendu beharko genuke. Gaur egun, LGTBI+ jendea arlo jakin batzuetan agertzen da den bezalaxe (familian, adiskideekin, espazio pribatuetan), baina argi dago, erasoak sailkatzearen beldur izateaz gain, oraindik ere salbuespena dela kolektiboaren barruan arlo guztietan LGTBI+ izatea ez

3 https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2019-7771

4 https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/code_of_conduct_factsheet_7_web.pdf

5 https://fra.europa.eu/sites/default/files/memo-fra-s-eu-lgbt-survey_es.pdf

6 <https://ilga.org/es/mapas-legislacion-sobre-orientacion-sexual>

ezkutatzea.

salatu nahi ez izatea

LGTBI elkarteek eta mugimenduek beti zenbatzen dituzte datuak ofizialetan jasotako baino eraso gehiago. Izan ere, kasu gehienetan, eraso nozitu dutenek salaketarik ez jartzea erabakitzen dute.

Funtsezko Eskubideen Europako Agentziaren arabera, gertatzen diren delituen % 90 ez da salatzen, eta, horrenbestez, gure duintasunari eraso egin dioten baztertutako kasu horiek guztien berri izatea oso garrantzitsua da. Horrela dela berretsi genuen guk ezagututako kasu bat ere ez zela **Arabako Fiskaltzara** heldu egiaztatu genuenean.

Ez salatzeko erabakia konplexua da, eta zenbait arrazoi egon daitezke tartean. Hona ohikoenak:

- Errepresaliatua izatearen beldur izatea. Beldur hori oso ohikoa da gorroto-delituen biktimen artean. Biktimari nozitutako delituak uzten dizkion arrasto larrietan oinarritzen da salaketa jarriz gero berriz eraso jasateko beldurra.
- Biolentziaren eta diskriminazioaren normalizazioa. Pertsona batzuek bizitza osoa daramate gorrotoaren eta diskriminazioaren biktimak izaten, eta, horren ondorioz, beren eguneroko bizitzan integratzen dituzte jokabide biolento horiek.
- Erakundeekiko mesfidantza: biktinek pentsatzen dute ez dietela batere kasurik egingo, edo salaketa jartzeak ez duela ezartarako balioko. Erakundeek biktimak ondo tratatzea funtsezkoa da, konfiantza sortzeko eta salaketa jartzeko aurrerapausoa eman dezaten.
- Agintariak biktimen egoeraren berri ez izatea. Ezagutza-falta horrek ekar dezake ez baloratzea behar bezala biktimaren ingurunea salatutako gertakeriak aintzat hartzerakoan.
- Egoera irregularrean dauden atzerritarrak beldur ohi dira ez ote dituzten herrialdetik kanpo botako salaketa jarriz gero.
- Biktimak uste du salatuz gero ez dietela sinestu egingo.
- Intimitatea jakinaraztearen beldur. LGTBI+ batzuek ez dute beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea ikusarazi gura salaketa jartzerakoan.
- Eskubideen berri ez izatea. Biktinek ez dakite non eta zelan salatu.
- Ekintzen eskaintza eskasa. Ekintzak eskaintzeak ahalbidetzen dio biktimari zigor-arloko prozesu batean bere eskubideak gauzatzea. Lengoia argia eta ulertteraza erabili behar da, termino juridikoen berri ez dutenak aintza hartuz. Baldin eta biktimak ez badu ulertzen helarazi zaion informazioa, baliteke dagozkion legezko egintzak ez gauzatzea.
- Zigor-sistema arbuiatzea. Biktimak zigorrekoak ez diren bideen alde egiten du, nozitu duen erasoaren aurrean.

erasoak detektatzeko arazoak

Askotan, eraso fisiko baten aurrean, eraso jasan duen pertsona osasun-zerbitzuetara joaten da, lesio-parte bat egitera, baina biktimak erasoan gorroto-osagai baten berri ematen ez duenez, gorroto-larrigarririk gabeko eraso gisa izapidetzen da. Egoera horrek are zailagoa egiten du sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta egindako gorroto-delituak detektatzea, ez baita inolako protokolorik aktibatzen, emakumeen aurkako eraso matxistak egon direla susmatzen denean gertatzen den ez bezala.

Nabarmendu behar dugu LGTBI+ jendea garena sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta egiten diren gorroto-delituen xede nagusia. Hala ere, akatsen ondoriozko diskriminazio-kasuak ere gertatzen dira, hau da, sexu bereko pertsonen arteko maitasun-edo afektu-adierazpenak direla eta, pertsona horiek LGTBI+ izan ez arren, eraso homofobo, lesbofobo edo transfoboak izaten dira.


Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta EHUk egindako 2019ko **Euskadiko Gorroto-Istiluei buruzko Txostenaren** arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan guztira **115 gorroto-istilu** erregistratu dira, eta horietatik **13 sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako delituei dagozkie**. Araban, arrazoi horrengatik **2 delitu** erregistratu dira.

estatuko egoera soziopolitikoak 2019an

Azken urtean, LGTBI+ jendearen aurkako gorroto-diskurtsoa areagotu egin da Estatuan, azken hilabeteetan gertatu diren gertakari batzuei lotuta. Adibidez: irrati-programa batean, **Paco Arévalo** komedianteak ukatu zuen diktadura frankistan pertsona homosexualak jazarpena nozitu zutenik; eskuin muturrak kiroletako homofobiari heltzeko mozio bati betoa jarri zion; hauteskunde-kanpainan, **Voxek** agindu zuen LGTBI+ harrotasunaren manifestazioak debekatuko lituzkeela; **Alderdi Feministak**, **Lidia Falcón** buru zuela, hitzeko erasoak egin zien trans-pertsoneri, generoa legez aitortzeko legea “lobby gay” batek inposatu zuela adieraziz, Twitterren egindako zenbait argitalpenetan.


LGTBI+ kolektiboaren aurkako indarkeriari dagokionez, bezero batek trans sexu-langile bat hil zuen Avilesen, irailaren 21ean. Uztailan, gizon bat erruduntzat jo zen, isuna ezarri zitzaion eta espetxean sei hilabete egotera zigortu, Bartzelonan duela hiru urte mehatxu homofoboak eta difamazioak egiteagatik. Abenduaren 10ean, Bartzelonako auzitegi batek “pilla-pilla” taldeko sei kide erruduntzat jo zituen, gizon homosexualak 2013an aipamen faltsuen bidez erakartzeagatik, segada batean harrapatu, haien bideoak egin eta publikoki pedofiliaz akusatzeagatik. Taldeko liderrari sei urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Abenduaren 19an, **Ángel Vázquez** politikariak eraso homofobo bat jasan zuen, Burjassoten, eta Iruñean **Koldo Martinez** senatariak bere kotxean margoketak salatu zituen. Martxoan, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioak (**FELGTB**) kezka adierazi zuen konbertsio-terapiak ugaritu direlako, Errioxan, Asturiasen, Kantabrian, Gaztela eta Leonen, Kanarietan eta Gaztela-Mantxan. Irailean, **Madrilgo Erkidegoak** 20.001 euroko isuna ezarri zion **Elena Lorenzo** andreari, hiru urte lehenagotik online konbertsio-terapiak egiteagatik.

Gorroto-diskurtsoari dagokionez, “**Hazte Oír**” erakunde ultrakatolikoak liburuxkak banatu zituen 23.000 ikastetxetan eta 6.000 guraso-elkartetan, #MisHijosMiDecisión kanpainaren barruan. Kanpainak “gurasoen PIN” bat aplikatzea eskatzen zuen, hau da, gurasoen baimena eman beharra haurrak LGTBI+ berdintasunari eta aniztasunari buruzko hitzaldietara joan aurretik. Murtziako gobernuak neurri hori sartu zuen. Abenduan, **Gaztela eta Leongo Hezkuntza Sailak** eten egin zuen ikasle transen inklusioari eta segurtasunari buruzko protokoloaren ezarpena, **Justizia Auzitegi Nagusiak Abokatu Kristauen elkarteak** aurkeztutako demanda onartu ondoren.



03*

metodologia



Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko Txosten hau egiteko kasuak detektatzeko, aplikatu izan ohi dugun metodologian oinarritu gara; hala ere, jarduteko modu horrek protokoloak eguneratu ditu, **Gasteizko Udalarekiko** lankidetzara egokitze aldera. Horretaz gain, webgunea irekitzeak (www.IKUSGUNE.eus) eta asteko edozein egunetan arratsaldeko edozein orduan gorabeherak online erregistratzeko aukera izateak informazioa biltzeko bide berriak ekarri dute.

egoerak bereiztea

Madrilgo eta Kataluniako behatokitik aplikatzen ari den edo aurreko txostenean baliatu genuen metodologia bera ezarri genuen detektatutako egoerak bereizteko. Metodologia hori dela eta, bereizi egin behar dira leku jakin bati, une jakin bati eta pertsona zehatz bati dagozkien kasuak eta halakorik ez direnak.

Hala, bigarren kasuari, hiru aldagai horietakoren bat falta zaionez edo ezaguna ez denez, tratamendu desberdina eman zaio; izan ere, ez ditu premisa guztiak hura kasu bat bezala izapidetu ahal izateko eta banakako arreta, laguntza eta erantzuna emateko ibilbide batean sartzeko.

Bildutako informazioa, Gasteizen gertatuko kontuei buruzkoa da batez ere, baina ez bakarrik; hiriburutik kanpo izandako gertakizunak ere sartu baititugu, iraganean hartu genuen konpromisoa betetze aldera, hau da: Arabako lurralde historiko osoari erreparatzekoa.

LGTBI+fobia direla-eta izandako erasoak detektatzea

2017an, Lumagorri ZAT osatzen dugunok egiaztatu genuen eraso gehiago izan zirela Gasteizen, batez ere gizonezko homosexualen aurka eta hiriko espazio oso zehatz batean. Dinamika hori behin eta berriz errepikatu zenez, alarma guztiak piztu ziren, patroia bat baitzegoen, eta gertakari horien aurrean, protokolo bat aktibatu genuen, erasoaren kopuruaren hazkundeari erantzuteko eta eraso horiek jasaten dituzten pertsonen laguntzeko asmoz.

Hala, **Gasteizko Sare Transbollarika** sortu zen, eraso horiei erantzun antolatua emateko. 2017ko ekainean, erasoaren lehen salaketa publikoa egin ondoren, Sareak harremanetan jartzeko eta salaketa jartzeko telefono bat jarri zuen Gasteizko herritarren eskura, bai eta informazio-dokumentu bat ere, non

jasotzen baitira sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta erasoren bat nozituz gero jarraitu beharreko jarraibideak.

Sarea desegin ondoren, **Lumagorri ZATek** kasuak biltzen jarraitu zuen, 2019ko ekainean Gasteizko **IKUSGUNE** LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia eratu arte. Telefono-zenbaki horrek gaur egun indarrean jarraitzen du Behatokiaren barruan. Protokoloak zenbait hobekuntza izan ditu, eta duela gutxi atal bat gehitu da webgunean (www.IKUSGUNE.eus), gertakariak edo gorabeherak jasotzeko.

telefonoa eta protokoloa gehiago zabaldu da

El informe también destaca que la violencia machista en fiestas es un fenómeno que se está incrementando y que requiere de una atención especial. El informe también destaca que la violencia machista en fiestas es un fenómeno que se está incrementando y que requiere de una atención especial.



PULSERA ROJA DEMARGARITARRA. La cuadrilla de blusas y neskas Gasteizko Margariak presentó ayer, en la plaza del Arca, la pulsera roja que favorecerá los miembros de la cuadrilla durante las fiestas de la Blanca en 2013 y el día de Santiago. La cuadrilla, con esta acción, quiere homenajear a la asociación de doctores de sangre de Álava para concienciar sobre la importancia de este gesto que puede salvar vidas. Foto: Alex Larretzi

Vitoria amplía su stand contra ataques machistas

El punto llá durante La Blanca será más accesible, más íntimo y estará en Independencia con Postas



VITORIA - El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que estas fiestas de La Blanca se abre tanto de la violencia machista como de ataques homofóbicos y que empoderen a las mujeres, para dejar de exigirles responsabilidades a ellas y hacer más hincapié en las conductas de ellos. "Queremos interpelar también a los chicos en cuál es su responsabilidad respecto a los jóvenes, con mensajes de despenalización de la mujer, para dejar de exigirles responsabilidades a ellas y hacer más hincapié en las conductas de ellos. El Consistorio, que está en estos momentos actualizando el nuevo protocolo contra las agresiones, punto de información de la ciudadanía, a las 24 horas del día y teléfono municipal de urgencias sociales del 94534444, ubicado en la calle San Antonio, número 30, para atender posibles agresiones, con personal de dinamización, y el 092 de la Policía Local, ubicado en la calle Argitanda. A.S. Foto: A.S.

Retiran la custodia a unos padres que pegaron a su hijo por ser homosexual

Ertzainas rescatan al menor de 16 años en plena paliza en Vitoria. «Le preferimos muertos», declaran sus familiares en el juzgado, que cede al chico a la Diputación

DAVID GONZÁLEZ
dgonzalez@elcorreo.com

VITORIA. Resulta fácil imaginárselo, barruntando cómo decírselo a sus padres. Durante semanas, quizá meses. En casa, en clase, con los amigos, su mente siempre sopesando. Y cuando por fin se armó del valor suficiente, la reacción recibida fue lo más parecido a un infierno. Su padre presuntamente le atizó con un palo. Su madre está acusada de amenazarle con clavarle un cuchillo. ¿El gran pecado? Confesárselo su homosexualidad.

El agredido tiene sólo 16 años. Hace escasos días, según ha sabido en exclusiva este periódico, agentes de la Ertzaintza le rescataron de su domicilio paterno, una vivienda de alquiler social de las muchas que hay repartidas por el término municipal. Presentaba marcas por todo el cuerpo y tiritaba de miedo. Toda la familia es de origen paquistaní. El adolescente apenas lleva un lustro en Vitoria.

Lo que sorprendió a los uniformados, y más tarde al personal del Palacio de Justicia, es la absoluta falta de arrepentimiento de los progenitores. «Le preferimos muerto», subrayaron en un momento dado. Ratificaron ese pensamiento en sede judicial.

Por esa razón, el Juzgado de Instrucción número 2, sala que lleva la causa, les retiró de inmediato la custodia del chico. Ha sido derivado a la Diputación alavesa, donde deberán buscarle una oportunidad de vida normalizada. Como mínimo



Concentración en Vitoria por una agresión homófoba. // JESÚS ANDRÁDE

LA CLAVE

Falta de arrepentimiento
«Los progenitores no lo entienden, les parece una vergüenza y una aberración»

hasta que alcance la mayoría de edad.

Su padre, el que más tiempo acumula en Vitoria, aterrizó en 2005. Más tarde se estableció su pareja. Cuentan con cuatro hijos y la víctima, nacida en Pakistán, es el mayor. Todos están escolarizados sin mayores incidencias. Los progenitores supuestamente son «unos vecinos

más, no llaman la atención», refiere un residente del mismo bloque. Fuentes policiales sospechan sin embargo que «no es la primera vez que le pegan», aunque no existen pruebas concluyentes.

La «amenaza» familiar

Tal vez el hecho de que en el país asiático la homosexualidad se persiga, haya pesado más que los casi quince años de integración en Vitoria de los miembros adultos de esta familia. «Los padres no lo entienden, los sentimientos de su hijo les parecen una vergüenza y una aberración», deslizan fuentes conocedoras del delicado caso. El progenitor, nacido a principios de la década de los setenta, ha tenido varias ocupaciones y

regentado su propio negocio, en el que trabajaba de cara al público.

No se recuerda en el Palacio de Justicia vitoriano un asunto de esta índole. En el resto de España sí han saltado a la luz algunos, pero a cuentagotas. Según el último informe mundial de la Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex (ILGA), Pakistán es uno de los estados más represivos con la homosexualidad. Curiosamente, «la mayor amenaza» procede de las propias familias, que por la vía violenta intentan cortar cualquier atisbo. Esto conlleva un número indeterminado de homicidios «para preservar el honor».

En España, en cambio, lo que se persigue es la homofobia, el odio

a los homosexuales. Por esa razón, tanto el padre como la madre se exponen ahora a duros cargos. Por un lado, el primero ha sido acusado formalmente de un maltrato en el ámbito familiar. El chaval necesitó de atención médica, aparte de que sus heridas fueron acreditadas por los forenses del Palacio de Justicia.

La madre ha sido inculpada por un delito de amenazas con arma blanca. Pero a este altercado le queda una tercera pata. Ambos adultos —a los que han impuesto una orden de alejamiento del menor— tienen serias opciones de responder en un futuro juicio por un delito de odio, agravado además por su relación de superioridad con su vástago.

EL CORREO 19/07/14

Retirada la custodia a unos padres que pegaron a su hijo por ser gay

EL PAÍS, Vitoria

Un juzgado de Vitoria ha retirado a unos padres la custodia de su hijo de 16 años, al que pegaron y amenazaron por ser homosexual, según informó ayer *El Correo*. La agresión se habría producido cuando el adolescente comunicó a sus padres, ambos de origen paquistaní, que es gay, una orientación sexual que está duramente castigada en el país asiático del que proceden. La Ertzaintza tuvo que intervenir para rescatar al menor, que ahora está bajo la tutela de la Diputación de Álava.

El padre ha sido acusado de un delito de maltrato en el ámbito familiar y la madre, de otro de amenazas con arma blanca y a ambos se les ha impuesto una orden de alejamiento, según el periódico. También podrían enfrentarse a un presunto delito de odio, agravado por su condición de superioridad respecto a su hijo. El Departamento vasco de Seguridad no ha ofrecido ningún detalle sobre este caso al estar involucrado un menor.

Tiritando de miedo

Cuando los agentes llegaron al domicilio familiar se encontraron con que el joven tenía marcas por todo el cuerpo. Tenía señales de haber sido agredido y tiritaba de miedo, asegura el citado diario. «Lo preferimos muerto», dijeron los padres ante la Ertzaintza, una declaración que después habrían ratificado en el juzgado. Los progenitores no mostraron ningún atisbo de arrepentimiento por su comportamiento.

El padre provocó presuntamente a su hijo, el mayor de cuatro hermanos, importantes lesiones al pegarle con un palo y la madre llegó a amenazarlo supuestamente «con clavarle un cuchillo». La policía investigó si ha sido un episodio aislado o el menor ha sufrido más agresiones en casa. Tras decretar la retirada de la custodia el Juzgado de Instrucción número 2 de Vitoria, el chaval ha sido derivado a los servicios sociales de la Diputación alavesa, que se hará cargo de su tutela hasta la mayoría de edad.

El chico vivía con su familia en un piso social de la capital vasca, a la que llegó hace cinco años. Su padre fue el primero en establecerse en Vitoria, en 2005, y más tarde fue reuniendo al resto de su familia.

Ser gay o lesbiana en Pakistán conlleva un riesgo extremo, pues es uno de los pocos países del mundo donde la homosexualidad puede acarrear la pena de muerte, según el informe *Homofobia de Estado 2019* de la Asociación Internacional de Gais, Lesbianas, Bisexuales, Transsexuales e Intersexuales.

EL PAÍS 19/07/15



La comunidad LGTBIQ vuelve a salir a la calle

CONCENTRACIÓN. La comunidad LGTBIQ de Gasteiz volvió a tomar ayer la calle para denunciar el último caso de homofobia conocido en la ciudad, cuando apenas han transcurrido dos sema-

nas y media desde la celebración del día del Orgullo. La coordinadora del 28-J, que aglutina a distintos colectivos, se concentró en la plaza de la Virgen Blanca en rechazo a la agresión a un

menor homosexual por parte de sus progenitores y censuró también la utilización racista que desde algunos sectores se ha hecho de la LGTBI-fobia a raíz de este suceso. Foto: Jorge Muñoz

DNA 19/07/17

Artziniegako emakumeek bi eraso lesbofobo salatu dituzte

SEPTIEMBRE 2, 2023 THROUGH AISARALDEA.EUS EN FRANCÉS 0

Izaera homofoboa izan duten bi gertakari jazo dira Artziniegako Jaietan asteburuan. Herriko emakumeek nabarmendu dute lehenengo aldiz izan dela eta neurriak hartu dituztela.

through Aisaraldea.eus



Playback Lehiaketa baina lehen aldiz: emakume gertakariak. / Aisaraldea.eus

Artziniegako Jaietan parte hartzen duten hainbat emakumeek salatu dute ospakizunetan bi eraso homofobo gertatu direla.

Lehenengoa ostiralean izan zen. Gazte batek emakume bat iraindu zuen eta berarekin talka egin zuen bere sexu orientazioagatik eta, antza, fisikoki erasotzeko saiakera ere egon zen.

Horren aurrean, emakume erasotzaile txosnara jo zuten gertatutako jakinarazteko. Txosnari protokoloa abiatu eta azpiegitura itxi egin zuten gau osoan zehar.

Kuadrilla ezberdinetako emakumeek bilera egin zuten gaia lantzeko eta zenbait erabaki hartu zuten. «Lehenengo aldiz da eraso bat gertatzen dela eta txosnari protokoloa besterik ez dago herriari», azaldu zioten atzo Aisaraldea hedabideari.

Alde batek erasotzailearekin hitz egin zuten. Bestetik, salaketa publikoa gauzatu zuten Playback Lehiaketa baino lehen. Horrez gain, txosnaren itxiera eta protokoloa babestu zituzten, pertsona batzuk ez baitzuten txosna itxtearen neurria ulertu.

Hala ere, salaketaren eta lehiaketaren ostean, komentario homofoboak errepikatu ziren bi DJren aurka. Edonola ere, DJek hartu zuten ardura erantzuteko eta arazorik gabe jarraitu zuten emanaldia.


Artziniegako Udalak erasok salatu eta gaitzetsi ditu sare sozialen bitartez eta hahesa eskaini die pertsona kaltetuei.

HALA BEDI 19/09/02


Gasteiz renueva su compromiso contra la LGTBifobia

VITORIA – El gabinete Urtaran ha aprobado el convenio de colaboración con la asociación Luma-gorri para el impulso de Ikusgune, observatorio contra la LGTBifobia en Gasteiz, que este año refuerza su aportación económica hasta llegar a los 70.000 euros a propuesta de Elkarrekin. Ikusgune es un sistema de observación permanente en contra de la homofobia, lesbo-fobia, bifobia y transfobia, donde se recogen datos, y se proponen y exploran vías para reparar el derecho vulnerado por razón de orientación sexual o identidad de género. – DNA

DNA 19/02/23



eztabaida eta ondorioak



Txosten honetan, 2019ko maiatzetik 2020ko apirilera bitartean izandako gorabeherak jasotzen dira; guztira, 25 kasu dira. Hau da, aurreko txostenekin alderatuta, gorabehera gehiago egon dira, nabarmen (13 kasu 2018-2019 txostenean, eta 15 kasu 2017-2018 txostenean). Igoera hori oso esanguratsua izan arren, ez da hainbeste LGTBI+ jendearekiko gorrotoaren hazkundearen ondorioa, **IKUSGUNE** Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia sortzearen ondorioa baizik. Izan ere behatokiak, modu profesionalizatuan leku fisikorik ez izan arren, bilaketa sakonagoa egin ahal izan du Gasteizen LGTBI+fobiari dagokionez dagoen benetako egoeraren berri emateko.

Giza eskubideen urraketei heltzerakoan, hauxe da ekuazio zuzena, beti: errekonozimendua, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak. Zalantzarik gabe, LGTBI+fobia dela-eta izandako gorabehera bati heltzen diogunean, gatazka bat dago LGTBI+ pertsona baten eta beste pertsona edo pertsona-talde baten artean. Begien bistakoa da gorroto-delituak buruz hitz egiten dugunean, eta, hain zuzen ere, hemen datza gertakariak larriagotzen dituenak, horiek ez direla bakarrik erasotutako pertsonaren aurka gertatzen, baizik eta pertsona hori kide duen kolektibo osoaren aurka (edo nahiz eta kidea ez izan, besteak hala dela susmatzen dutenean). Baina gatazka izateak errekonozimenduaren eta erreparazioaren bideari heltzeko aukera ematen digu.



LGTBI+ kolektiboaren lehen eskakizunetako bat ikusgaitasuna izan da, eta, egun ere, jarraitzen du izaten. Aurrerapenak egin diren arren, oraindik ere badaude espazio batzuk non LGTBI+ jendea ez da ikusgai, hala nola lan- edo familia-eremua. Ezin dugu ahaztu, ezta ahaztu nahi ere, sexilioa (LGTBI+ pertsonak hiri handiagoetara erbesteratzea oharkabean pasatzeko, LGTBI+fobiatik ihes egiteko eta askeago sentitzeko). LGTBI+ kolektiboak ikusgaitasun gehiago nahi izatea ez da nabarmenkeria-kontu bat. Ikusgaitasuna aldarrikatzen dugu aitortpena behar dugulako, eta eskubideak erreklamatzeko, baita geure izate bera ere.

Aurretiaz aztertuta, ikusi genuen LGTBI+ kolektiboa ez dela aintzat hartzen hainbat eremutan. Are gehiago, terminoa osatzen duten inisialetako bakoitzak oso egoera desberdina bizi du jendartearen aitortpenaren ikuspuntutik. Ez da gauza bera gay-a, lesbiana, bisexuala edo transa izatea, ezta gainerakoekin intersekzionatzen duen beste errealitate batekin lotzea ere (klasea, jatorria, kultura...).

Jendarte binarista eta heteronormatibo batean gaude, eta, horrenbestez, ez du onartzen sexu- eta genero-dibertsitatea, eta horregatik, hain zuzen zaila izaten da erreparazioaz hitz egitea kolektibo horrek pairatzen dituen erasoak dagokienez. Izan ere, LGTBI+ jendea aintzat hartuak izan behar dugu, erreparazioa bezalako neurriak heldu ahal izateko. Erakundearen esparruan, halaber, LGTBI+ jendearen aurkako erasoak eta diskriminazioa aitortzeko ekintzak bultzatu behar dira, zenbait arlotatik abiatuta, besteak beste, sexu-berresleipeneko terapietatik, arriskugarritasun sozialari buruzko legetik, poliziaren jazarpenetik, kartzelatik, ikusezintasunetik, patologizazioetik eta HIESaren pandemiarekiko jarrera instituzionaletik.

IKUSGUNEK jasotako gertaerak

2019.ko maiatzetik 2020.ko apirila arte 25 gertakari jaso dira



7 gertakari udaberrian
10 gertakari udan
4 gertakari udazkenean
4 gertakari neguan.

2019an, 21 gertakari jaso ziren
(maiatzetik-abenduara).

2020an, 4 gertakari jaso dira
(urtarriletik-apirilera).


Euskal Autonomia Erkidegoko delinkuentzia-memoriaren arabera, 2019an, guztira, 115 gorroto-delitu eta -diskurtso zenbatu dira; 2018an, 130, eta 2017an, 129. Eremuaren eta testuinguruaren arabera, arrazoi hauek direla-medio izan ziren: 55, arrazakeria edota xenofobia dela-eta; **13, sexu-orientazioa edo -identitatea** (horietatik, **2 Araban** erregistratu ziren); 18, ideologia; 7, erlijio-orientazioa; 6, aniztasun funtzionala; 3, aporofobia; eta 3 sexu-diskriminazioa. Sexu-orientazioa edo -identitatea direla-eta izaten diren gorroto-delitu eta -diskurtsoen bilakaerari dagokionez, % 66 jaitسي dira gorabehera horiek, 2019an, 2018koekin alderatuta.

Aurten ere ikusi dugu ez datozela bat datuak: batetik, bide judizialera daraman prozedura ofizialaren bidez lortutakoak daude, eta, bestetik, **IKUSGUNEK** egiten duen bide sozialaren bidez jasotakoak. Horrek, horrenbestez, eta aurten ere, errealitate sozialaren eta errealitate judizialaren artean dagoen arrakala handia egiaztatzen du. Bat ez etortze horri eragiten dioten faktore asko dauden arren, bi nabarmendu nahi ditugu nagusiki. Lehenengoa, hemen jasotako kasuetako asko ez daudela tipifikatuta **Zigor Kodean** gorroto-delitu gisa, eta, horrenbestez, legeria ez dela diskriminazioa haren osotasunean kontuan ari. Bigarrenik, biktima askok salaketarik jartzen ez duenez eta gorroto-diskurtsoen aurrean prozedurak garatzerik ez dagoenez, nolabait, horri buruzko “gutun zuri” sozial bat dago, zeinak LGBTBI+ jendearen eskubideak urratzea ahalbidetzen duen (kontsultatu **Observatori Contra l’Homofòbia de Catalunya** erakundearen txosten berezia, 60. orr). Halaxe dela adierazten du, halaber, **Arabako Gorroto Delituen Fiskalak** txosten honen beste atal batean jasotako idazkian (56. orr).

erasoen tipologia

Fobia motaren arabera

Homofobia: 12 gertakari
Intrageneroa: 3 gertakari
LGTBI+fobia: 2 gertakari
Lesbofobia: 3 gertakari
Serofobia: 2 gertakari
Transfobia: 3 gertakari




Behatu dugunez, homofobiak hartzen ditu atzemandako kasu gehienak. Izan ere, lesbofobia askoz ere ikusezin bihurtzen da jendarte heteropatriarkalean, eta, horrenbestez, zailagoa da txostenetan detektatzea. Gainera, kolektiboaren aurkako diskriminazioaren eta indarkeriaren ondorioz, transfobia-kasuak detektatzea ere zailtzen duen ahalduntze-falta dago. Era berean, aurten ikusi dugu, berriro ere, harreman sentimentalen barruko indarkeriak (genero berekoen artekoa) nabarmentzen jarraitzen duela.

Azpimarratu beharreko beste datu bat da serofobia eraso-arma gisa agertzen dela LGTBI+ kolektiboaren barruan, batez ere gizon gay-en artean. Aurrerapenen sozialen hamarkadak ez dira nahikoak izan GIBari buruzko estigma amaitzeko, ezta LGTBI+ pertsonen artean ere.

eraso motaren arabera



Irainak eta jazarpena: 16 gertakari
Gorroto-diskurtsoa: 6 gertakari
Eraso fisikoa: 3 gertakari



Sailkapen horretan, gorroto-diskurtso gisa sartu ditugu pertsona baten aurka zuzenean zuzentzen ez diren kasu guztiak, zeinetan pertsona baten sexu-orientazioa erabiltzen baita gorroto-diskurtsoa sustatzeko (eremu politikoari buruzko kasuetan, adibidez), edo egoera bat (adibidez, sendatze-terapiak) edo prozedura bat (adibidez, pertsona trans bati administrazio-aldaketa bat egiteko moduari buruzko ezjakintasuna) erabiltzen baita, kontzienteki edo ez, LGTBI+ kolektiboarekiko gorroto-diskurtsoa barreiatzeko.

Irainak eta jazarpena harreman sentimental batean (genero berekoen arteko indarkeria) edo pertsona ezezagunen edo harreman zuzenik ez dutenen arteko eraso batean sor daitezke. Eraso fisikoek, kasu honetan gutxien kontabilizatzen direnak badira ere, garrantzi berezia dute, bai zuzeneko ondorioengatik, bai gertatzen diren eremuengatik ere.


lekuaren arabera



Aiaraldea: 2 gertakari
Añana: gertakari 1
Gasteiz: 21 gertakari
Orokorra: gertakari 1

Txosten hau Gasteizko Udalerriari buruzkoa bada ere, beharrezkotzat jo dugu Araban detektatu ditugun beste kasu batzuk sartzea, aurreko txostenean egin genuen bezala. Erabaki hori hartu dugu **Arabako koadrilen** lurralde-errealitatera hurbiltzeko ate bat ireki nahi dugulako, bai eta landa-eremuan gertatzen ari den errealitatearen ikuspegiaren zati bat aurkeztu ere, etorkizuneko proiektuetan sakonago ikertu nahi baitugu errealitate hori.

eremuaren arabera



Lantokia: 5 gertakari
Politikoa: 3 gertakari
Espazio publikoa: 3 gertakari
Familiakoa: 2 gertakari
Aisia: 5 gertakari
Instituzionala: gertakari 1
Genero barrukoa: 2 gertakari
Sare sozialak eta aplikazioak: 4 gertakari

Sailkapen horren ondorioz, lehen aldiz ikusi dugu sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta izaten diren gorabehera edo gertakari gehienak lan-esparruan izaten direla (aisialdi eta jai-espazioan ere).


Ikus dezakegunez, sare sozialak eta ligatzeko aplikazioak oraindik ere jazarpena eta estortsioa eragiteko bide potentzial berriak dira, are gehiago esparru horretako erregulazioa oraindik urria denean.

Oso kezagarria da familia-eremuan indarkeria-kasu berriak agertzea, adingabeek horrelako egoera baten aurrean duten kalteberatasun izugarriagatik. Gainera, kasu horietan administrazioek ezarritako ibilbide sozialekiko konfiantza mugatua da oraindik.

Txosten honetan, hauteskunde-ziklo trinko bat jasotzen duelarik, ziklo horren barruan hiru hauteskunde-aldi jarraian izan baitira, garrantzi berezia hartzen du nola erabiltzen duten alderdi politikoetako ordezkariak, gorroto-diskurtsoa zabaltzeko, figura publiko baten sexu-orientazio ezaguna, bai arlo publikoan, baita pribatuan ere.

Ezin onartuzkoa da Administrazioak ez izatea protokolo argiak eta errazak ezarrita transek erregistroari buruz duten lege-xedapena gauzatzeko. Atal honetan ere jasotzen da kasu hori.


eragindako pertsonaren arabera



Bisexuala: 2 gertakari
LGTBI+ kolektiboa: gertakari 1
Gay: 16 gertakari
Lesbiana: 4 gertakari
Trans: 2 gertakari

Berriz ere, gay-ak dira txostenean kasu gehien biltzen dituztenak. Hori ez da gertatzen pertsona horiek pairatzen dutelako indarkeria gehien LGTBI+ kolektiboaren barruan; aitzitik, gainerako indarkeriak askoz ere ikusezin bihurtzen dira, eta oraindik ere kostatzen zaigu horren inguruko kasuak ezagutzea.

zer hedabideren bidez ezagutu da kasua



Komunikabideak: 5 gertakari
Sare sozialak: gertakari 1
Webgunea: 2 gertakari
Erasoen telefonoa: 17 gertakari

Beste behin ere, gorabeherak salatzeko telefonoa izan da kasu gehien detektatzeko erabilitako bidea, eta, haren ondoren, komunikabideetan egindako bilaketak daude. 2019ko abenduan webgunean salaketa-gune bat jarri zen martxan, eta horrek osatu egin ditu salaketa-bideak, eta emaitza onak ematen hasi da. 2020an zehar, salaketa-gunea zabaltzen jarraituko dugu webgunean.

sare sozialak eta ligatzeko aplikazioak

Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen dira haien bidez erasoak egiteko. Hala egiaztatzen dugu urtero egiten ditugun txostenetan. Gero eta gehiago erabiltzen dira, bai, sexua eskaintzen zaien pertsonekin zuzenean harremanetan jartzeko, gero xantaia egin ahal izateko, bai herritarren artean gorroto-diskurtsoak zabaltzeko ere. Gainera, sare sozialak arautzen dituzten algoritmoen funtzionamendu-izaeragatik beragatik, gorroto-diskurtsoak gaindimentsionatuta eta indartuta daude, datu-fluxu handia dago, eta, haren ondorioz, irabazi ekonomikoen fluxua sortzen dute. Hori oso kezagarria da, baita horri buruzko erregulazio seriorik ez egotea ere.

Beste alde batetik, teknologia berriek gora egin dute beste LGTBI+ pertsona batzuekin harremanetan jartzeko orduan, eta, horren ondorioz, sozializazio-espazio tradizionalak alde batera uzten eta ixten ari dira, pixkanaka. Hala, harreman pertsonalak galtzen dira, eta, horretaz gain, ikasi egiten dira indarkeria-egoerak tratatzeko moduari buruzko portaera-jarraibideak. Horren ondorioz, erabat eraldatzen ari da LGTBI+ jendeak harremanak izateko modua, bere artean eta jendartearekiko. Hori dela eta, azterketa zehatza egin beharko litzateke egiaztatzeko bide berri horiek zailtasunak eragiten dizkieten pertsona askori beste batzuekin aurrez aurre harremanetan jartzeko garaian. Gainera, ondoriozta dezakegu positiboa izango litzatekeela administrazioak LGTBI+ jendea ezagutzeko guneak sortzea eta sendotzea, aurrez aurreko harreman galdutako horiek berreskuratzeko, LGTBI+ publikoari zuzendutako aisialdirako eta ostalaritzako lekuetatik harago. Gune horiek udalerriko kolektiboek kudea ditzakete, beren lana aintzatesteko eta mugimendu horren gogoetekin bat datozen eta helburu ekonomikoak dituzten planteamenduetatik urrun dauden espazioak sortzeko. Jakina da tokiko mugimendua arbuatzen duela beste hiri batzuetan – hala nola Madrilan edo Bilbon– ezartzen ari den eredu merkantilista, LGTBI+ errealitate asko eta haien ikuspegi interseksionala ikusezin bihurtzen dituelako.

Zentzu horretan, oso positiboa izango litzateke **IKUSGUNE**ren lokal fisikoa abian jartzea, topagune eta trukerako gune gisa, Gasteizko LGTBI+ komunitatearentzako erakargune gisa.

eremu publikoko pertsonak armairutik irtetea

Txosten honetan lortutako datuen arabera, 2019an izandako hauteskunde-gatazkaren ondorioz zabalduko gorroto-diskurtsoen inguruan bildutako kasuak nabarmendu nahi ditugu. Kezkagarria da berdintasunezko ezkontza onartu eta 15 urtera oraindik ere pertsona publiko baten aurka diskurtso erasokorra egotea (kasu honetan, politika-munduko pertsona ezagun bat), haren sexu-orientazioa dela-eta.

Gainera, gorroto-diskurtsoa artikulatzen den bi angeluetatik jasotzen dira gorabeherak txosten honetan. Alde batetik, eraso tradizionala (“marikoia” edo “marikonazoa” bezalako irainak) erabiltzen jarraitzen da, asmo honekin: arau zisheterosexuala betetzen ez duen pertsona bat gutxiago dela argi uztea, alegia, arau hori betetzen duen pertsona baten azpitik dagoela. Horixe da historian zehar LGTBI+ jendeari egiten zaigun eraso tradizionala. Bestalde, txostenean agerian jartzen da, halaber, azken aldian sortu den gorroto-diskurtsoa, batez ere eskuin muturreko jarrera ideologikoetatik. Diskurtso horren arabera, LGTBI+ klase pribilegiatu bat dago, “lobby gay” izenekoa, pertsona “arruntak” diskriminatzen dituen (arazuko pertsona zisheterosexuak). Diskurtso hori oso arriskutsua da, nolabaiteko enpatia sortzen baitu mezuaren azterketa sakonik egiten ez duten herritarren artean. Horregatik, gorroto-diskurtso gisa orain erabiltzen ari den diskurtsoa da.

Mezu mota hori errotik moztea funtsezkoa da LGTBI+fobiaren aurka borrokatzeko, baita horrelako diskurtsoei inolako espazio publikorik eta bozgorailurik ez emateko ere. Zoritxarrez, erakundeak eta komunikabideak ez dira horren inguruko lan handirik egiten ari.

lanpostua eta lan-ingurunea

Txostenak lan-ingurunean lankideekin edo goi-mailako arduradunekin gertatutako zenbait gertakizun edo gorabehera ere jasotzen ditu. LGTBI+ jendeak lanean bizi dugun errealitatea oso aldakorra da, asko baitago lan-eremuaren mende. Hori bazterkeria-gunea da LGTBI+ kolektiboko pertsona jakin batzuentzat. Gainera, beste errealitate batzuekin (jatorria, generoa, adina, dibertsitate funtzionala ...) intersekzionatzen duen eremua da, eta, era berean, biziraupenaren, ikusezintasunaren edo passing¹-aren ondorioz areagotu egiten da, batez ere lanpostu berri batera iritsi ondorengo hasierako faseetan. Pertsona horiek badakite jendaurrean LGTBI+ lez agertzeak berekin ekar dezakeela LGTBI+fobia sozialaren eraginpean jartzea.

Esparru horretan, azpimarratu behar dugu sindikatuek eta enpresek sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta izaten den diskriminazioaren aurka borrokatzeko plan egokiak izan beharko lituzketela. Gainera, sindikatuek ziurtatu beharko dute enpresetako ordezkari sindikalek behar den prestakuntza dutela LGTBI+ jendeari eragiten dizkigun kasu eta egoera partikularrei erantzuteko.

Azterlan guztiek adierazten dute trans-ek pairatzen dutela bazterkeria sozialeko arrisku handiena LGTBI+ kolektiboaren barruan, lan-arloko oztopoei aurre egin behar izaten dietelako. FSC-CCOO² erakundearen jarraibideen arabera, lehenik eta behin, zailtasunak dituzte lanpostu bat eskuratzeko: trans asko baztertu egiten dituzte lan-elkarrizketan bertan, haien dokumentazioa ez datorrelako bat duten itxura fisikoarekin, eta horien % 60k adierazi du diskriminatuta sentitzen direla lana aurkitzeko orduan. Bestalde, enpresa barruan trantsizio-prozesua egitea erabakitzen dutenak beldur izaten dira, ez ote dituzten lanetik botako, baita egonkortasun ekonomikoa galtzearen beldur ere; izan ere, beren enpresak ez daude beti trantsizio-prozesuei aurre egiteko behar adina prestatuta. Oztopo horiek guztiak informazio-faltatik eta aurreiritzietatik datoz, eta gaur egun talentua galtzen ari da erakundeen barruan. Horregatik, garrantzitsua da administrazio publikoek eta enpresek laneratze- eta enplegarritasun-programak garatu ahal izatea, transei lanerako gaitasuna eta lan-aukera emateko. Beharrezkoa da enpresek prestakuntza ematea eta sentsibilizazioa lantzea enpresetan, segurtasuneko eta diskriminaziorik gabeko testuinguru bat egon dadin, trantsizio-prozesu bat hastea erabakitzen duten transexualei laguntza emateko eta jendartearen eta erakundeen babesik eza konpentsatzeko.

Era berean, azpimarratu behar dugu gazteen lan-prekarietatea eta lana aurkitzeko zailtasunak larriagotu egiten direla transen kasuan, batez ere haien genero-adierazpenarekin bat datorren dokumentaziorik ez dagoenean. Egoera hori hobetu egiten da pertsona batek bere genero-adierazpenarekin bat datorren dokumentazioa duenean eta dokumentazio hori ziseteronormatiboa denean. Egoera horrek jendartearen zer identitate onartzen ari garen eta zeintzuk ez hausnartzera eraman beharko gintuzke. Era berean, azpimarratu behar da binarioak ez diren transek zailtasun handiak dituztela lana aurkitzeko.

Desirak plazara. Gasteizko LGTBI biztanleen errealitateei buruzko Diagnostikoak berak erakusten digu galdetutako pertsonen % 28k adierazi duela beren ongizatearekin edo askatasunarekin lotutako arazoren bat izan dutela edo beren eskubideak murriztu zaizkiela lan-esparruan LGTBI+ kolektibokoak izateagatik; % 12,1ek zalantzak ditu horri buruz; % 20,6k ez daki edo ez du erantzun; eta % 39,3k adierazi du tratu egokia izan duela.

1 Ikus glosarioa 6. orrialdean

2 <https://fsc.ccoo.es/19a2cd92ab9d055f8bf2350c24b8e565000050.pdf>

LGTBI+fobia, familia nuklearrean

Nabarmentzekoak dira, halaber, familia nuklearraren barruan armairutik irteteen gurasoek beren seme-alabei eragiten dizkieten indarkeria-kasuak. Kalteberatasuna izugarria da; izan ere, adingabetasuna dela-eta, gurasoen legezko tutoretzapean jarraitzen dute oraindik ere. Gurasoek gazteak etxetik botatzen badituzte, kalte psikologiko larriak eragin diezazkiekeen zirkuitu sozial batean sartzen dira. Horrelako zirkuituak hobetzea eta ahalik eta erantzun azkarra, eraginkorra eta trauma gutxienekoa izatea inplikaturako administrazio publikoen lehentasunetako bat izan beharko litzateke. Ibilbide sozialek afektu-sare berriak sortzen lagundu behar dute adingabe horien eta antzeko familia-egoeretan dauden edo egon diren beste batzuen artean. Zentzu horretan, **IKUSGUNE**k zeregin garrantzitsua izan dezake topaketarako eta sozializatorako gune gisa.

serofobia, XXI. mendean

Ikusi dugunez, kasu batzuetan LGTBI+ kolektibo bereko pertsonen arteko serofobia jasotzen da. **SEISIDA**k 2011n emandako datuak jasoko ditugu, ***Espainiako biztanleek GIBa duten pertsonetikiko dituzten usteak eta jarrerak***³ azterlanean. Biztanleriaren %18,1ek uste du GIBaz kutsatutako pertsonen izenak aditzera eman beharko liratekeela, halaxe jokatu nahi duen jendeak pertsona horiek saihestu ahal izan ditzan. Hiru espainiarretik bat deseroso sentituko litzateke lan egiteko lankide GIBdun batekin. Biztanleriaren %20k uste du legeak behartu egin beharko lukeela leku jakin batzuetan GIBa duten pertsonak bananduta egotera, osasun publikoa babesteko. Biztanleriaren %44,5 deseroso sentituko litzateke normalean erosi ohi duen dendako langileren batek GIBa izango balu. Soilik % 6k izango luke kontzienteki sexu-harremana GIB+ duen pertsona batekin.

Espainian detektatutako lehen GIBaren kasutik lau hamarkada igaro badira ere, serofobia handia dago oraindik ere jendartearen, baita LGTBI+ garenon artean ere, eta horietako batzuek oraindik ere arma bat balitz bezala darabilte, iraintzeko, jazarpena egiteko eta diskriminatzeko.

genero berekoen arteko indarkeria

Txostenean, berriz ere, genero berekoen arteko indarkeria-kasuak agertzen dira. Indarkeria-mota hori oraindik ere linbo moduko batean dago, baina LGTBI+ bikoteen artean gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da.

Horri buruzko estatistika gutxi daude. Estatu Batuetan, **Gaixotasuna Kontrolatzeko Zentroak**⁴ inkesta bat egin zuen LGTB kolektiboko zenbat pertsona izan diren etxeko indarkeriaren biktima jakiteko. Lesbianen artean % 38k “baietz” erantzun zuten; emakume bisexualen % 61,1; gizon homosexualen % 25; eta gizon bisexualen % 37,3. **Australiako Osasunari eta Sexualitateari buruzko ikerketa-zentroaren**⁵ inkestaren arabera, LGTBI+ populazioan, gizonen % 41ek eta emakumeen % 28k pairatu dute etxeko indarkeria. **COGAM**ek Espainian egindako barne-azterlan baten arabera, inkestatutako pertsonen % 60k aitortu zuen ezagutzen zuela genero berekoen arteko indarkeria pairatu zuen norbait. Pairatzen dutenen artean, gizon homosexualen % 27 eta emakume lesbianen % 34 dira.

Indarkeria-mota horrek baliabide espezifikoak izan behar ditu; gaur egun ezin baitzaie arreta eman genero berekoen arteko bikotekidearen tratatu txarren biktima diren emakume lesbianei, genero-indarkeriaren araudiaren arabera. Eta legeria eta baliabideak ere ez dira garatu gizon homosexualen kasuan.

3 <http://www.seisida.es/wp-content/uploads/2015/12/informe-seisida-fipse.pdf>

4 https://www.cdc.gov/violenceprevention/pdf/nisvs_sofindings.pdf

5 <https://aifs.gov.au/cfca/publications/intimate-partner-violence-lgbtqi-communities>

ortzadarra, landa-eremuan

Berezitasun gisa, landa-ingurunean gertatutako kasua nabarmendu nahi dugu, zehazkiago Añanako koadrilako herri batean, non bizilagun batek etengabe agertzen da zirikatzena biktimaren etxera, hura bertan dagoela edo ez, haren sexu-orientazioa dela-eta. Arabako herrietako testuingurua (eta, hedaturaz, tipologia soziologiko bereko beste herri batzuetan bizi dena) oso desberdina da lurraldeko gune handietan dagoenarekin alderatuta, hala nola Gasteizen. Herriak oso espazio atsegin bilakatu daitezke, baita oso etsaiazkoak ere, eta normalean ez dago erdibiderik. Landa-ingurunearen errealitatera iristea egiteko dugun zeregina da oraindik. Oraindik askotan jendeak alde egiten du herrietatik (baita hiri txikietatik ere) hirietara, azken horiek askatasun-sentsazioa ematen dutelako (anonimotasunaren eta jende gehiago egotearen ondorioz). Hala ere, gero eta gehiago dira landa-ingurunearen eta LGTBI+ jendearen inguruan sortzen diren ekimenak, bai landa-elkarteetan bilduta daudenak, bai aktibismoan parte hartzen dutenak. Etorkizun hurbilari begira, **Lumagorri ZAT** elkarteak errealitate horretara hurbilduko gaituzten ekimenak antolatzen jarraituko du, Arabako herrietan zer gertatzen ari den jakiteko asmoz. Daukagun esperientziak berak esaten digu kasuistika aukera zabala hartzen duela, LGTBI+ jendea errespetatua den lekuetatik hasi eta hezkuntza frankistak hainbeste sustatu zuen LGTBI+fobia soziala erreproduzitzen den lekuetaraino.

administrazio-prozedura ez ezagutzea eta prestakuntzarik ez izatea

Azkenik, txostenean erakunde publikoei zuzenean eragiten dieten bi kasu jasotzen dira, funts komuna dutenak. Gabezia larriak dira administrazio-prozedurak ez ezagutzea eta ez ematea ahalik eta traturik hoberena genero-trantsizioko prozesu bat bizi duen edo eraso bat jasan duen pertsona bati. Bada, iaz halako kasuak jaso dira. **Lumagorri ZAT**ek asko azpimarratu du gorroto-erasoen biktimekin lan egiten duten langile guztiei prestakuntza egokia emateko beharra (segurtasun-indar eta kidegokoei, baita zerbitzu sozialetakoei ere). Oraindik bide luzea dago egiteko eremu horretan, biktimek salaketa bat erregistratzean jasotzen duten arretari buruzko kexek erakusten dutenez.

Gainera, premiazkoa da administrazio publikoetako langileek jaso behar duten etengabeko prestakuntzan jendartean sortzen diren errealitate berriak txertatzea. Premiazkoa da, argi eta garbi, trans-en errealitatea sartzea prestakuntza horretan, beharrezko izapide guztiak egin ahal izateko, eskatzailearen duintasunaren aurkako erasorik eragin gabe, eta transei tratu ezin hobea emanetz betiere.

07*

erasoak LGTBI+ kolektiboaren barruan



Bikote-harreman baten barruan gertatzen dena (genero berekoen arteko indarkeria deiturikoa) eta horrelako harremanik izan gabe ere gertatzen dena bereiz dezakegu LGTBI+ kolektiboaren barruko indarkeria-kasuen artean.

Genero bereko bikotekideen arteko indarkeria (intrageneroa) genero-indarkeria den edo, aitzitik, etxeko indarkeria den jakiteko, familiaren barruan gerta daitezkeen bi indarkeria mota horiek bereizi behar dira.

Etxeko indarkeriari dagokionez, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan deskribatutako pertsonetatik edozeinaren aurka baliatzen den indarkeria da, hau da, ezkontidearen aurka edo biktimarekin bikote-harremanaren antzeko afektibitate-harremana duen edo izan duen pertsonaren aurka, bi pertsona horiek elkarrekin bizi diren ala ez batera utzita.

Beste alde batetik, genero-indarkeria da harreman sentimental bat duten gizon eta emakume baten artean gertatzen dena, gizonak emakumeari eraso egiten dionean. Gainera, haien arteko harremana ezkontzakoaren antzekoa izan behar du, elkarrekin bizi izanda ala ez.


IKUSGUNEren ikuspuntutik, eta txosten honen glosarioan (5. Orr) jasota dagoen bezalaxe, hau da intragenero-indarkeria edo genero berekoen arteko indarkeria:

Genero bereko bikote sentimental bateko kideen arteko indarkeria-ekintzak, bikotekide baten osotasun fisikoari, osotasun psikikoari, osotasun moralari edo bizitzari eragiten diotenak; botere-harremanen eta desberdintasun-egoeraren adierazgarri dira, eta ezkontideari, ezkontide ohiari, edo antzeko afektibitate-harremanen bidez lotuta dagoen edo egon den pertsonari eragindakoak, elkarrekin bizi izanda ala ez.

Genero berekoen arteko indarkeriaren kontzeptu horrek LGTBI+ kolektiboaren barruan genero bereko bikoteetan gertatzen diren kasuei egiten die erreferentzia, baina oraindik ez da gehiegi eman aditzera, eta mugimenduak ez du ezer esaten terminoaren egokitasunaz eta eman beharreko tratamenduaz. Gatazkak, botere-harremanek eta desberdintasunek ez dute nahitaez genero-osagairik izan behar, edo osagai hori erabat nahas daiteke, esate baterako, sozialki feminitateari esleitu ohi zaion aldetik badator, zeina ahulagoa omen da, edo halaxe dela aurreuposatzen da.

Horren guztiaren ondorioz esan daiteke genero berekoen arteko indarkeria egokiro ikusarazi eta tratatu behar den errealitatea dela, eta, gure ustez, erantzun juridiko bat behar da egoera bidegabeak eta biktimentzat arriskutsuak direnak saihesteko, baina ez da beti bat etorriko bikote heterosexual batean gertatzen den asimetriarekin, juridikoki jasotzen den bezala.

Litekeena da LGTBI+ kolektiboko kide batzuek indarkeriatzat ez hartzea LGTBI+ kolektiboan barruan gertatzen den indarkeria, delitu-ekintzak izan ala ez, hala nola jazarpen diskriminatzailea, bullying-a, serofobia edo LGTBI+fobia. Izan ere, baliteke eraso jasan duen pertsona ahalduntzeko eta dagokion salaketa jartzeko baldintza egokietan ez egotea; gai hori kontuan hartu behar da tratamendu instituzional eta administratiborako.



08*

kolaborazioak



- **Delitos de odio: el reto de su visibilidad.**
María Vidal Beneyto
Gorroto-delituen eta diskriminazioaren aurkako fiskal delegatua
Arabako Fiskaltza
- **“La herramienta del amo nunca destruirá la casa del amo”**
Miren Ortubay Fuentes
Feminista, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko Irakaslea
- **Documento de análisis jurídico de las incidencias recogidas.**
Observatori Contra l’Homofòbia de Catalunya

DELITOS DE ODIIO: EL RETO DE SU VISIBILIDAD

Por “delito de odio” se entiende el delito cometido por un sujeto cuando venga motivado por el prejuicio hacia un estereotipo representado por una condición personal o por la conexión de la víctima, real o percibida, hacia un colectivo social que haya sido tradicionalmente objeto de discriminación.

Por lo tanto, junto al delito-base de acción, va unida una motivación guiada por el ánimo discriminatorio o humillante. La dificultad añadida que presentan estos delitos es que es necesaria la acreditación de la motivación discriminatoria del autor.

Distintos son los delitos de “discurso de odio” los cuales favorecen la comisión de delitos de odio de acción al incitar a la violencia y al odio hacia colectivos vulnerables.

Además existen los “incidentes de odio” que son hechos que, pudiendo ser indiciariamente constitutivos de un delito de odio, no son delito, ya sea porque no son constitutivos de infracción alguna, ya sea porque sean constitutivos de una infracción administrativa o bien porque todavía no se ha dictado sentencia condenatoria por la comisión del delito de odio que haya sido enjuiciado.

